

ALBERTO BUSTILLO

Izenbururik gabea / Sin título
2015

Erreprodukzioa / Reproducción

Grafitoa / Grafito

35 x 50 cm

Albertori grafito-barra lodi batez marraztea gustatzen zaio. Masa beltz eta estu bilakatuko den espazioa ixten duten marra batzuk egingo ditu aurrena, poz-pozik, egiteko primario bat –marrazki bat betetzea, alegia– duelako buruan. Mardulak eta sendoak, bere marrazkiek eskultura txikiak edo berezko dentsitatea duen materia ekartzen dituzte gogora.

A Alberto le gusta dibujar con una barra gruesa de grafito. Comienza a dibujar tirando líneas que delimitan el espacio destinado a convertirse en una masa negra y apretada, llevado por el deleite de abandonarse a una acción tan primaria como es rellenar. Casi macizos, sus dibujos recuerdan pequeñas esculturas, materia con una densidad propia.



ÁNGEL JESÚS SASTRE

LA CASA DE MIS SUEÑOS *Prozesuan / En proceso*

Erreprodukzioa / Reproducción
Teknika mistoa / Técnica mixta
49 x 163 x 857 cm

Ángelek bi urte eman zituen kartoizko etxe hau eraikitzen. Denbora hartan, bazirudien bere etxe propioa eraikitzen ari zela.

Lurrezko etxe txiki batekin hasi zen, eta poliki-poliki zoruak eta gelak gehitzen joan zitzaion, gero geletan altzariak jarri zituen; jarraian, patio bat, balkoiak eta leiha-teak erantsi zituen, solairu bat, bi, eta azkenean barrualdea itxi egin zuen. Bere horretan dago, ikusi ezin den arren, faraoien ganberak bezalaxe.

Ángel dedicó dos años a construir esta casa de cartón. Durante ese tiempo pareció estar construyéndose su propia casa.

Comenzó con una modesta casita terrera a la que fue añadiendo suelos, después estancias, amueblando cada una de ellas cuidadosamente; luego siguió un patio, balcones y ventanales, un piso, dos, hasta quedar finalmente cerrado el interior, oculto a la mirada e intacto, como las cámaras de los faraones.



BELÉN SÁNCHEZ

LA TETILLA 2012

“La Tetilla” film laburrerako eszenografia-pieza / Pieza de escenografía para el cortometraje “La Tetilla”
Burdina eta alanbrea; aurpegia eta oinak, oihal josiz eginak; eskuak, eskaiolaz, moldean oinarrituta
/ Hierro y alambre, con cara y pies de tela cosida y manos de escayola a partir de molde
220 x 150 x 80 cm

Belének filmak egiten ditu. Film horien bidez, bere gain hartu duen bizitzako gertakariak behin eta berriz bizi ditzake. Filmak prestatzeko, benetako beharrak guztiz gainditzen dituen sorkuntza-prozesu bati ekiten dio. Bertan, leku nagusia du eskulturak, zeina atrezzo ez baizik eta ekintza den.

Bere film laburretan, Bizitza gure biziak zeharkatu eta biluzten dituen elementu edo potentzia gisa agertzen da. Puntu horretan, bere jarrerak ez du onarpena erakusten, buru-argitasuna baizik. Justifikatu gabe, ezer egin gabe ikusle gisa dagoen buru-argitasun zintzoa.

Gaur egun, bizitza sakona dugulako seinalerik txikienaren aurrean hura aztertu eta desegiteko aholkua jasotzen dugun garai honetan, Belének berea erakusten digu, bizirik eta exorziatu gabe dagoen bere barne-munstroa.

Belén hace películas. Sus películas son una forma de revivir una y otra vez episodios de su vida que ella toma a su cargo. En su preparación acomete un proceso de creación de obra que excede por mucho la necesidad real, donde la escultura ocupa un lugar preeminente, es acción antes que atrezzo.

En sus cortos la Vida aparece como elemento o potencias que atraviesan nuestras vidas desnudándolas. En ese punto, su postura no es aceptación sino lucidez, sincera lucidez de asistir, sin más, sin justificarlo.

Hoy, que al menor indicio de vida profunda se nos recomienda librarnos de ella analizándola, Belén enseña la suya, su monstruo interior sin exorcizar, vivo.



JORGE BERMEJO

Izenbururik gabe / Sin título
2015

Erreprodukzioa / Reproducción
Errotuladore fina, paper gainean / Rotulador fino sobre papel
42 x 35 cm

Zergatik ez badakigu ere, guztiok egiten ditugu gauzak modu batera edo bestera. Horri estilo esaten zaio.

Estiloa, beraz, marka pertsonal bat da, gure jarduteko modu jakin batzuetan bistaratzen dena. Hori da Jorgeren marrazkietan ikusten den aurreneko gauza: berezko marrazteko modu bat, marrak eta horrek ezartzen duen ordena txikiak lortua eta definitua. Linea horrek eszena guztia inguratzen du eta hortik, ia-ia nahi gabe, arkitektura sortzen da modu naturalean.

Por alguna causa que no sabemos, hacemos las cosas de una manera y no de otra, eso es lo que viene a decir la palabra estilo.

Estilo es entonces una marca personal que se hace patente en unas determinadas maneras de proceder, es lo primero que se ve en todos los dibujos de Jorge: un estilo de dibujar propio, logrado, definido por la línea y algo de un orden que ella pone y con el que envuelve toda la escena, del que casi sin quererlo, naturalmente resulta la arquitectura.



JOSÉ MANUEL EGEA

HOMBRE LOBO **2011**

Erreprodukzioa / Reproducción
Argazkian egindako interbentzioa / Intervención sobre fotografía
28,4 x 21,7 cm

José Manuelen obra gizotsoaren metamorfosiari eskainia dago osoki.

Pertsonaia horrek sortzen dion lilura dela-eta, marrazki bakoitzak ekintza eta metamorfosisa da. Horrelakoak dira bolígrafo urdin edo beltzez marrazkietan eta argazkietan egin dituen ehunka bertsioak. Luzetara eta otso baten atzaparkada jaso balute bezala moztu arte, ez ditu amaitutzat ematen marrazkiak.

La obra de José Manuel está entregada por entero a la metamorfosis del Hombre Lobo.

Su fascinación por el personaje hace que el dibujo sea acción, metamorfosis en cientos de versiones entre dibujos y fotografías que él interviene a bolígrafo azul o negro, sobre las que aparece el Hombre Lobo, dándolas por terminado solo después de cortarlas a lo largo, como de un zarpazo.



MARÍA LAPASTORA

Izenbururik gabe / Sin título
2014

Erreprodukzioa / Reproducción
Errotuladore fina, paper gainean / Rotulador fino sobre papel
35 x 50 cm

Maríaren amak dioenez, bere alabak, tailerretik bueltan, marrazten jarraitzen du etxean. Xehetasun horrek ondo baino hobeto erakusten digu zer nolako garrantzia duen lanak bere marrazkietan.

Hasiera guztietan, bada une kritiko bat, espazioarekin tratatu beharreko unea, hain zuzen ere. Maríak erabakitasun osoz egingen dio aurre une horri, eta lan gogor bati lotzen zaio, marrazkia betetzeko patxadaz egin beharreko lanari, alegia.

Marrazteak, beste edozein asmok bezala, denbora sortzen du benetakoa bada eta, horren inguruan, barnealde propio bat, etxe bat, animalia sartzen den oskola. Maríaren marrazkiak zerbaiten barnean sartzeko mugimendu horren adibide dira.

La madre de María cuenta de su hija cómo después del taller continúa dibujando en casa; ese solo detalle basta para descubrir la importancia de la labor en sus dibujos.

En todo inicio hay un instante crítico, es el momento de tratar con el espacio, algo que María resuelve de una vez y con total decisión dando paso a la labor, al trabajo cierto y paciente de aplicarse al relleno.

Dibujar, lo mismo que cualquier otro propósito, si es de verdad crea tiempo, y en torno a él un dentro, un interior propio, la casa, la concha en la que el animal se introduce. Sus dibujos son ejemplo de ese movimiento de meterse dentro de algo.



MIGUEL GARCÍA

LOS ZAPATOS DE LA CENICIENTA 2015

Erreprodukzioa / Reproducción
Erretxinazko moldea / Molde de resina
13 x 28 x 6 cm (x2)

«Errauskineren zapata» hauek Miguelen lehen eskultura dira. Dakigunez, ipuinetako pertsonaien ingurukoa da bere interes guztia. Horien bilduma zenbatezinak ditu, berak buruz eta azkar marraztutakoak, kezka nagusia horiek dauden lekutik paperera ekartzea baita.

Zenbaki bezala baino iradokitzen ez den kontakizun estatiko baten zantzuak. Kontaezintasuna hitzaren hutsaltasunak berak, hau da, kontakizunak, ematen du, eta pieza hau mugimendu horren igarle da dagoeneko.

Kristalezko zapata pare horren ondotik Peter Panen kapelua eta Kako-oker kapitainaren kakoa ere egin zituen. Ilusioz eta pazientziaz egin zituen objektu horiek, eta bukatu eta berehala probatu zituen. Horiek kontakizun dira dagoeneko, zenbakia segida amaiezin izatetik salbatzen duen hitzaren zantzu primarioa.

Estos “Zapatos de la Cenicienta” son la primera escultura de Miguel. Por lo que sabemos, todo su interés gira alrededor de los personajes de cuentos, de los que colecciona series innumerables que él mismo dibuja de memoria, rápidamente, ya que su preocupación es traerlos de donde están para fijarlos en papel.

Indicios de narración estática aún por desplegarse apuntada tan solo como número, donde lo incontable lo da el vacío de la palabra que es narración, movimiento del que esta pieza ya es anuncio.

Su pareja de zapatos de cristal, a la que luego le han seguido el gorro de Peter Pan y el garfio del Capitán Garfio, objetos realizados con paciente ilusión y que una vez terminados no ha tardado en probarse, ya son narración, rastro primario de la palabra que salva al número de ser sucesión interminable.



ALICIA HERRERA

Izenbururik gabe / Sin título
2013

Erreprodukzioa / Reproducción
Arkatza, paper gainean / Lápiz sobre papel
20 x 30 cm

Marraztea bat-bateko ekintza zintzoa da, eta hura ikustea nahikoa da begiradaren helburua zein den jakiteko: zer bilatzen den eta horren aurrean zer erantzuten den. Eta espazioa da bilatzen den lehen gauza; bere sorkuntza bada, berak ipintzen du hor, ikusi ahal izateko.


Hemen begirada beharrezkoa den gutxieneko distantziarik gabe egin zen. Ez da kanpoan kokatzen, aparte, baizik eta barruan, gehiegikeriaz eta nahasmenduz beteriko barnealde batean.

Begirada horren atzean zegoen asmoa ez zen ikustera joatea. Aitzitik, espazioa berendu nahi zuen, hartzeko lukurreria hutsez, ahalik eta gehien gainera. Ikusteko nahi bizia, azkenean guztia irensten duena.

Dibujar es una de esas acciones tan espontáneas y sinceras, que se bastan solas para delatar el objeto de la mirada, aquello que busca y ante lo qué responde, y el espacio es lo primero que busca; es creación suya, ella lo pone para poder ver.

Aquí la mirada se dio sin la distancia mínima que necesita. No se sitúa fuera, separada, sino dentro, en un interior donde todo es exceso y confusión.

La intención de la mirada no fue ir a ver sino a apropiarse del espacio por avaricia de coger, y cuanto más mejor. Ansiedad de ver que acaba devorándolo todo.



EDUARDO DE LA CALLE

Izenburrik gabe / Sin título
2013

Erreprodukzioa / Reproducción

Kolaz itsatsitako zurezko piezez egina / Construcción de piezas de madera encoladas
90 X 147 x 76 cm

Eduardoren egurrezko eraikuntzak dira, orain arte, bere sorkuntza-jardueren fruitu bakarra.


Urtetako lana eskaintzen die pieza horiei. Hori dela-eta, pilaketa eta nahaste geldiezin batzuk gertatzen dira, eta ezinezko orekak sortzen dira, halabeharrez.

Horrela, pisu eta makurdura eutsiezinetan dauden piezek tente jarraitzen dute, mirariz edo, eta edozein unetan eroriko direla badirudi ere, ez da halakorik gertatuko, elkarri lotuak baitaude kola puntu ñimiñoen edo zinta itsaskorraren bidez.

Las construcciones en madera de Eduardo son hasta el momento el único testimonio de su actividad creativa.

Son piezas a las que dedica años de trabajo, circunstancia que hace visible un proceso de acumulación y abigarramiento imparables, que acaban inevitablemente en equilibrios imposibles.

Y así es que piezas con pesos e inclinaciones aparentemente insostenibles, se sostienen de milagro con la sensación de ir a vencerse y no hacerlo, unidas unas a otras por mínimos



MIGUEL ÁNGEL HERNANDO

Izenbururik gabe / Sin título
2013

Erreprodukzioa / Reproducción
Errotuladore fina, paper gainean / Rotulador fino sobre papel
25X35 cm

«Gauzatxoak» eta animalia fantastikoak, leunak eta aske flotatzen dutenak, eta ia beti irribarrez daudenak. Horiek dira Miguel Ángel-en mundua osatzen duten bi elementuak.

Denborak aurrera egin ahala, ugaritu egiten dira haien apaindurak. Egunez egun, Miguel Ángel urrats bat haratago joaten da bere lanak dekoratzeko erabiltzen dituen sare eta erretikulen nahasmenduaren xehetasunetan eta konplexutasunean. Lanerako duen arreta ikusita, ezin asma daiteke norainokoa den bere marrazkiak apaintzeko fintasuna.

El suyo es un mundo de “cositas” y animales fantásticos, muy delicados que flotan sueltos, casi siempre sonrientes.

Con el tiempo, van adquiriendo un proceso de ornamentación creciente. Día tras día Miguel Ángel va un grado más allá en el detalle y complicación del entramado de retículas y mallas que emplea para decorarlos. A la vista del esmero que pone, no se sabe dónde puede acabar el refinamiento en el adorno de sus dibujos.



JOSÉ LUIS MANTECÓN

Izenbururik gabe / Sin título
2012

Erreprodukzioa / Reproducción
Zurezko listoiez egina / Construcción con listones de madera
114 x 70 x 5 cm

Altzari bat egin nahi zuen José Luisek. Nahi praktiko horrek bultzatuta, eraikuntza-prozesu primario bati ekin zion egurrezko xaflekin, eta horren emaitza dira bere piezak.

Alabaina, zati asko, hasiera batean bere altzarietako baten partak izango zirela ziruditenak, muntatu gabeko elementu solte gisa geratu ziren, eta ez dakigu zergatik.

Las piezas de José Luis Mantecón son resultado de un proceso muy primario de construcción a partir de listones de madera, llevado por el interés práctico de hacerse un mueble.

Sin embargo, muchas de sus partes, que inicialmente parecían destinadas a ser las paredes de alguno de sus muebles, sin que sepamos por qué, se quedaron finalmente como elementos sueltos sin ensamblar.



MARINA SOLANO

Izenburu gabea / Sin título
2014

Erreprodukzioa / Reproducción
Collagea / Collage
17 x 23 cm

Marinari ipuinak kontatzea eta eraikitzea gustatzen zaio. Horretarako, marrazkiak erabiltzen ditu batzuetan, eta maketa txikiak beste batzuetan. Halere, agian collagean –kontatzeko formatu oso kondentsatua denez– agertzen da modu argiago batean esanahi konplexu eta irekiagoak dituen narratiba bat eta konposaketaren oso zentzu intuitibo bat.

A Marina le gusta contar y construir cuentos, a veces con dibujos, a veces con pequeñas maquetas. Pero es quizá en el collage, al ser un formato de narración muy condensada, donde aflora de forma más clara, una narrativa de significados más complejos y abiertos, y un sentido muy intuitivo de la composición.



RUBÉN CABANILLAS

LYS CONTENTA 2011

Erreprodukzioa / Reproducción
Zurezko taila / Talla en madera
80 x 26 x 29 cm

Artistaren gorputzak isla argia du bere artelanetan. Horren lekuko dira Rubéneko pintura eta eskultura. Handiak, sendoak, karratuak dira, bera bezalaxe.


Zuraren adabegi eta harien kontrako norabidean zizelkatzen du egurra, mintzak urratuz eta hautsiz. Horrek ematen die sendotasuna bere piezei. Bere margolanak, bere alantzeko eskulturak bezalaxe, figurak inguratzen dituzten apaindura-geruzak dira. Bere memoriatik irteten diren irudien bilduma, mihisera ekarritako irudion zerrendak edo serieak: pertsonatxo txikiak, landareak, arropak...

Identifikazio bat dago beraren eta bere obraren artean. Obra bat amaitzen duenean, argazki bat egiten du Rubének bere lanaren ondoan. Aurrera begira, margolan bat denean; eta lau aldeetatik, eskultura bat bada. Keinu soil horrek erakusten digu irudikatzea bere burua aurkeztea dela, errealitatean sartzen dela bere obraren bitartez, hari eskutik helduta, elkarri laguntzen diotelarik.

El cuerpo del artista tiene su claro reflejo en su obra. Lo dice la pintura, la escultura de Rubén, grande, robusta, cuadrada como él.

La rotundidad de sus piezas le viene de tallarlas a contra veta, desgarrando, rompiendo las fibras de la madera. Sus cuadros, lo mismo que sus esculturas de alambre, son pátinas de ornamentación envolviendo lentamente las figuras. Recopilación de imágenes salidas de su memoria, listados o series de ellas incorporadas al lienzo: pequeñas personas, plantas, ropas...

Entre él y su obra media una identificación. Rubén finaliza lo que hace fotografiándose al lado. De frente si es un cuadro, por los cuatro lados si es una escultura. Ese gesto tan simple dice que representar es presentarse él, entrar él en realidad a partir de su obra, con ella de la mano, acompañándose los dos.



SERGIO CARNICERO

Izenburu gabea / Sin título
2014

Erreprodukzioa / Reproducción

Errotuladore fina, paper gainean / Rotulador fino sobre papel

35 x 25 cm

Sergioren marrazkietan sarearen itxituran itota geratu da marrazkiek horren gertukoa duten umeen unibertsoa. Balizko jatorri hori hain atzean uzten duen saltoa nabaria da marrazkiak ikusterakoan sentitzen dugun hunkipenean: balirudike zartada elektriko batek zeharkatu duela, alderik alde, margoan dagoen guztia, eta hipnotizatuta eta tentsioan jarri dituela gauza guztiak, gorputz biluztuak, animaliak, etxeak, autoak...

Harritzekoak dira loreak. Denak batera agertzen dira, batzuetan eszenari lotuta eta plano bakar bat osatuz.

Begirada izoztu egiten da, eta haren lekuan bat-bateko ikus-taldi bat geratzen da. Bertan, guztia batera ematen da, gauzak bata bestearen gainean edo barruan emanda.

En los dibujos de Sergio, el universo infantil al que están tan próximos, ha quedado atrapado en el encierro opresivo de sus mallas. El salto que deja tan atrás esa posible procedencia, se hace sentir en la impresión que dejan al verlos: parecen estar recorridos por un latigazo eléctrico que mantiene hipnotizado y en tensión todo lo que hay, cuerpos desnudos, animales, casas, coches...

Extrañan las flores, que aparezcan en serie; entre cosidas a veces a la escena formando un único plano.

Mirada repentinamente paralizada dejando en su lugar la sacudida de una visión instantánea en la que todo está dado a la vez, o superpuesto o incrustado.



MARTA PARAMO

Izenburu gabea / Sin título
2015

Erreprodukzioa / Reproducción
Rotulador sobre papel
31x41 cm

Marta margolaria da. Pintura, garunaren ideia baino lehen, izaki biziduna ere bada, eta hori igarri egiten da Martaren lanean. Materiaren mundua agertzen zaigu obretan, eta forman eta kolorean ikusten den arima, margotutakoaren gorputzean ikusten dena.

Marta es pintora. En su trabajo se reconoce algo de lo que la pintura tiene de ser vivo antes que de idea en la mente, y cuando la pintura es así, y en la de Marta algo hay de eso, lo que aparece es el mundo entrañado de la materia, su alma que deja ver en el color y en la forma, en el cuerpo de lo pintado.